



SASOI BETEAN

Mende eta erdi bete du aurten Azpeitiko Udal
Musika Bandak, inoiz baino osasuntsuago 20

**"Badakit
beti
alboan
izango
dudala"**

IRAKASLEA EDI
WATSON/STYLLA



GAES AZPEITIA

Foruen Ibilbidea, 8 - T. 943 150 395

azpeitia@gaes.es

ENTZUMEN AZTERKETA DOAN

DEITU ETA ESKATU TXANDA





Smart Retail sistema berria



Eskerrak azpeitiar eta azkoitiar guztioi. 2016 oparoa izan dezazuela!

AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik astiralarera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



de no na

informazioa

euskalduna

anitz Facebook GERTU

LOKOKO erabilgarria

GER TU KOA

elkar lane an

aldiz karia

TWILAR

HERO egu nero

KOA ZU rea

azpeitiko

egin bazkide

de no na

komunikazioa

uztarria.com

euskalduna

INTERNET

informazioa

uztarria

herrikoa

zuen tzat zurea

PARTE - HARTZAILEA

Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukora hauetako baten bitartez:

- uztarriabazkidetza@gmail.com
- Telefonoa: **943 15 03 58**
- Bulegoko helbidea: Perez Arregi 1, behea
- www.uztarria.com webgunean, kontaktu formularioaren bitartez



egin bazkide

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 186.a (2016ko abuztua)
Urtea. XVII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. J. M. Ibartzabal
Webgunea.
www.uztarria.eus

**Uztarria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Uztarriak
Bai Euskarari



**Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua**

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2016KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



24



34

iritzia

Inkesta. Irakurtzerako
orduan, e-book-a edo
liburua nahiago? **13**

mamia

Onintza Valverde.
Atropa Belledonne
bakarlariari
elkarrizketa **04**
Klik! Skandalue
elektrotxarangaren sei
urteko ibilbidea
iruditan **16**

Basque In Motion.
Diaspora erroekin
lotzeko agentzia **24**

jakiteko


Bestaldetik.
Argazkilaritza kontuak
albo batera utzi, eta
Ainara Garciarekin
solasean **34**

Ba aL dakizu Azpeitiko udal Igerilekuak,
kanpo eta barru, guztira 1.430.000 metro
kubiko ur jasotzen ditueLa? **Uztarria**

Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia**
txikiak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro
gara Uztarria Komunikazio **dira urtean.**
Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

ONINTZA VALVERDE

bakarlaria

“ErreibindikatzaiLea den Letra dut gustuko”

Atropa Belledonne bakarlariak besteren bertsioak jotzen ditu, gitarraren eta ahotsaren konpainian. Kontzertuak eskaintzen ere hasi da. 🎸🎧 Ainitze Agirrezabala

Bederatzi urterekin hasi zen gitarra jotzen Onintza Valverde, eta ordutik musikaren konpasetan dabil. Garrantzia berezia du bakarlariaren bizitzan musikak; “egunerokotasunetik ihes egiteko arnasbidea” da. **Atropa Belledonne. Izenak, behintzat, arreta deitzen du.** Italiarazko izena da, bi hitzen nahasketatik dator. *Atropa* hitza bi ziaren haria moztzen duen Atropos greziar jainkotik eratorria da; heriotzaren jainkoa, alegia. *Belledonne* hitza, berriz, *bella donatik* dator, eta emakume ederra esan nahi du. Era berean, atropa belledonne sendabelar baten izena ere bada. XVII. mendearen erdian, landare hori erabili zuen andre batek edabe bat sortzeko. An-

drea alarguntzean jabetu zen emakumeak aske izateko garai hartan zuen aukera bakarra alarguna izatea zela. Izan ere, emakumea umetan aitaren mendekoa zen, eta ezkontzean gizonarena. Landare harekin egindako edabea aske izan nahi zuten emakumeei ematen hasi zen, euren senarrak pozoitzeko eta hiltzeko. Andrea torturatu egin zuten, eta 600 pertsona hil zituela aitortu zuen. Farmazia ikasten dut, eta kasualitatez egin nuen topo istorio horrekin. Bortitza da. Hitzak, alde batetik, emakumearen edertasuna adierazten du, baina baita emakumeek askatasuna bilatzeko duten grina ere.

Nola hasi zinen musikaren munduan?

|||DATUAK|||

|||**Jaio.** 1993ko martxoak 5.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Farmazia ikaslea, gradu amaierako lana ari da egiten.

Aitak betidanik jo du gitarra, eta ikasi nahi nuela esan nion amari. Lagun bat eta biok hasi ginen musika eskolan, bederatzi urterekin. Denbora batez aritu nintzen ikasten, eta geroztik neure kasa jarraitu dut, autodidakta. Batez ere, lagunartean, familian, jo izan dut. Erasmus programarekin Italian egon nintzenean ikusi nuen jendeak instrumentuekin plazara atera, taldean bildu eta musika jotzen zuela, eta neu ere joaten nintzen. Italiatik bueltan, Orkatzen jotzea proposatu zidaten, eta segituan eman nuen baiezkkoa.

Egia esan, jendearen aurrean jotzeak errespetua ematen dit, beti oso giro intimoetan jo izan dut-eta. Halere, nahikoa gertuko sentitzen ditut orain arte kontzertuak eskaini ditudan Orkat, Sanjuandegi, Errezil...

Nola trebatzen zara?

Egunero entzuten dut musika, eta aukeratzen joaten naiz zer kantu eta letra gustatzen zaizkidan eta zeintzuk bertsionatu nahi ditudan. Gustatzen zaizkidan kantu horien akordeak ateratzen eta ahotsa entseatzen hasten naiz, autodidakta moduan. Oraindik gitarran asko dut ikasteko, eta nahiz eta zenbait kantu gustatu, zailak egiten zaizkit jotzeko, eta baztertu egiten ditut. Ahotsa eta gitarra ere grabatu ohi ditut, ondoren



entzuteko eta zertan hobetu behar dudana ikusteko. Eta noiz-bait kuadrillakoei ere bidali izan dizkiet grabazioak, haien iritzia jakiteko.

Ba al duzu abeslaririk erreferente gisa?

Era askotako musika entzuten dut, baina gitarrarekin errazago

egiten zait kantu lasaiak bertsiogatzea, mugituagoak direnak baino. Letra erreibindikatzaileak gustatzen zaizkit, zerbait adieraztea gustatzen zaidalako. Une honetan asko entzuten dudana da La Otra. Bera ere bakarlaria da eta kantu desberdinak egiten ditu. Ken zazpi ere gustatzen zait,

eta baita Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori*, Latino-amerikako La Llorona, *Bella Ciao* italieraz edo asturiar meatzarien ereserkia ere. Guztiek amankomunean duten ezaugarria da sozialki erreibindikatzaileak diren letrak dituztela.

Besteren abestien bertsiok jotzen dituzu, baina sortzeko asmorik ba al duzu?

Egin izan ditut batzuk, baina neurtzat edo ingurukoentzat. Oso seguru egon beharko nuke egingdako kantu bat plazaratzeko. Sortzen ditudan abestietan nire sentimenduei buruz hitz egiten dut, eta, agian, horregatik kostatzen zait hainbeste plazaratzea. Une honetan ez zait ateratzen;

“musika asko moldatzen da norbere egoera emozionalera”

“norbere ideiak jendearekin elkarbanatzeko tresna da musika”

agian, aurrerago egingo dut.

Konparazioan, oraindik ere askoz gehiago dira oholtza gainean gizonezkoak emakumezkoak baino.

Uste dut hori gure gizartearen erakusle bat gehiago dela. Emakumea ezkutuko lanak egitera mugatzen du gizarte eredu heteropatriarkalak eta gizona protagonismo hori bilatzera bultzatzen du. Baina iruditzen zait pixkanaka emakumeok joan behar dugula

plaza horiek hartzen.

Zein izan da orain arte bizi-tako unerik bereziarena?

Ez dut momenturik politena dela esango nukeenik. Asko gustatzen zaidan unea da oholtzara atera aurretik sentitzen dudana urduritasuna.

Bakarlari bezala aritzen zara, baina taldean jo edo abesten al duzu?

Beti bakarlari bezala aritu izan naiz. Agian, egunen baten, aukeraren bat sortuz gero, ez dut baztertzen taldean aritzea, baina momentuz horrela gustura nago.

Zer eman dizu musikak?

Nirekin egon da bai momentu zailetan, bai alaietan. Azkenean, musika asko moldatzen da norbere egoera-emozionalera; nahiko kameleonikoa da. Zeuk erabakitzen duzu zer entzun nahi duzun momentu bakoitzean, eta zer jotzea nahi duzun. Estutasun-egoeratik ihes egiteko bidea ere izan da musika. Emozioak garbiago ikusten eta horiek azaleratzen lagundu izan dit. Momentu honetan, kantu erreibindikatzaileak jotzea ateratzen zait, eta nire ustez bada norberak dituen ideia horiek jendearekin elkarbanatzeko tresna polit eta goxo bat.

Musikaren munduan nora heltzea gustatuko litzaizuke?

Nire ametsa da orain arte bezala segitzea. Nahiz eta bere garaian gitarra jotzen ikasi, solfeoa ez dakit, eta gustatuko litzaizake teknikoki hobetzea, askotan mugak ikusten ditudalako jotzea nahi dudaren eta jotzeko gai naizenaren artean. Farmazia ikasketak bukatzeko gradu amaierako lana aurkeztea falta zait, eta lanpetuta ibili naiz, baina ikasketak amaitzean, berriro gitarra jot-



Oporretan trumioia

Ia denoi aurre hartu dizuet oporrei dagokienez. Eguntxo batzuk libre genitue-nez, Pirinioetan zehar ibili gara, furgonetan traste batzuk sartu eta kanpinetik kanpinera, errutinari ihes egin nahirik.

Jaka eta inguruetakoa hainbat udaletxe zein zerbitzuri, publiko nahiz pribaturi, gomendio bat eman nahi nieke; jarri zuen kartelak euskaraz. Konturatu naiz, inguru horietako kanpinetan euskaraz gehiago hitz egiten dela zenbait Euskal Herriko herritan baino. Titulurik gabeko soziologo honen begietatik, honen arrazoiak ugari izan daitezke; batetik, geure herri maitetik ateratzean sortzen zaigun abertzaletasuna, harro esan nahi diegu ingurukoei, "nik euskaraz... hemen behintzat". Bestetik, agian, estatistikoki euskaraz hitz egiten dugunok, aukera gehiago ditugu Pirinioetan oporralditxoak igarotzeko, hau beste teoria antropologiko batekin lotzen dudalarik, alegia, oraindik gure erroak Pirinioetan daudela, honela, gure lurra dei egiten digu, eta bertan satortu nahi dugu. Esaten dutenez, Jakako merkatuan euskaraz egiten omen ziren tratuak aintzina, Nafarroa izaki, eta orain? Beste aukera litzateke, konspirazio batena, ikusgaitz zaizkigun mezuen bidez, Euskal jauntxoek Jaka konkistatzeko mezuak bidaltzen dizkigute, adibidez ETB-k mezu subliminalak jaurtitzen dizkigularik *el Conquis* edo *GTG* programetan, edo *Berria*-ko eta *Gara*-ko udako argazki leihaketatik Pirinioetan ateratako argazkiek irabazten dituztelarik. Esan, guzti honek ez duela inolako oinarri zientifikorik, besterik gabe frustrazio asko dituen herrialde bateko herritar baten burutazioak direla.

Opor osteko krisia

Bestetik, datuek diote, bikoteen arteko banaketa gehienak oporraldien ostean izaten direla. Uda amaierak eta udazken ilunaren hasierak, maitasun mugagabe eta eternoaren lorkartzea omen dakarte. Denbora gehiago el-



egoitz arruti

||| Ez joan oporretara, finean, abokatuek asko kobratzen dutelako, baina kanpoan nahiz herrian euskaraz aritu

karrekin igarotzeak izan omen lezake errua. Baina argi, nire ikerketen arabera, amaieraren hasiera, oporren lehen egunean dago. Kalkuluak zehatzak izateko datu bat falta zait; banatzen diren bikote horietatik, ea zenbatek igaro dituzten oporrak kanpin batean, berdinean kanpin-dendan, autokarabanan edo furgonetan. Arazoaren zuztarra, kanpinera iristearrekin batera hasten da, montaketa lan nekagarri eta korapilatsuari ilusioz ekiten zaio, baina bero egiten du, eta beroaren arrazoiak ez du eguzkiak, baizik bikoteko norbait berandu irten izanak etxetik. Ondoren, beti falta da zerbait, mailua, dendaren ohialen bat, haurraren betaurrekoak, mendiko bota bat, hortzak garbitzekoa. Hortik aurrera, ezin lo ondo egin, ingurukoen zaratak, haurrek ez dutela nahi uretatik atera, mendira joan beharra, trumioia, komun komunak, beroa eta hotza. Noski, horrelakoetan errazena, errua ondoan denari botatzea izaten da.

Beraz, ez joan oporretara, azken finean, abokatuek asko kobratzen dutelako, baina hori bai, kanpoan nahiz herrian, euskaraz aritu.*



ONDO PASAU SANINAZIYUEK! 2016 AZPEITIA

UZTAILAK 22 - 23 - 24 - 25 - 27 - 30 - 31

ABUZTUAK 1 - 2



SANINAZIYUEK GUSTOA, LIBRE ETA SEGURU

**AZPEITIKO UDALAK DEI EGITEN DIE HERRITAR GUZTIEI ERASO
SEXISTEN AURREAN JARRERA AKTIBOA HAR DEZATEN.**

Gustatu ala ez

Neska koskor isila da, errespetu handikoa, eta beti esana egiten duena. Eskolan ere oso gustura daude bera-ekin, ez diolako kontra egiten inori. Saiatu gara ondo hezten, ikusarazi diogu obeditzen ikasten badu, pertsona eredugarria izango dela etorkizunean ere”.

Halaxe hezten ditugu umeak, heldu izango direnak: kritiketatik at, arrazonamendutik urrun. Nahikoa da errespetuzkoa eta obedi-entia izatea, eskolan eta etxean nabarmentze-ko. Gure historiaren oinordekotza da: frankis-moarena, errepresioarena eta, batik bat, isil-tasunarena. Urteetan erakutsi digute isilik gelditzea dela aukerarik onena; nolabait, “libre” izateko. Gobernuak kontrolatutako hezkuntzak hori sustatu du, eta herritar xumeen etxeetan horren alde egin da, “bada-ezpada”. Maila sozial apaletako familiak izan ziren eta dira errepresioa sufritu dutenak.

Ez dira gauzak aldatzen belaunaldi batetik bestera, oroimenean eta bihotzean arrastoak ditugu belaunaldi berriek ere. Isiltasunaren kultura ez da iragana soilik. Agintariek, oraindik, jarraitzen dute isiltasuna sustatzen, inpo-satzen. Etxeko testuingurutik, herrira salto egiten badugu, ikusiko dugu gure herrian duela aste batzuk gertatutakoa: Uztarría Komunikazio Taldeko kazetari bat identifikatu zuen Ertzaintzak, Azpeitia Tente mugimen-duaren batzarraren berri ematen ari zela. Po-liziak gerturatu zitzaizkon, eta hamaika galde-ra egin ostean, argazkiak ezabatzeko iradoki zioten. Gogorarazi zioten Espainiako Gobernuak abian jarritako Herritarren Segurtasu-nerako legea –Mozal legea– erabil zezakete-la bestela, eta ondorio latzak izan zitzakeela.

Zer da hori ez bada errepresioa, isiltasuna: 1939ra begira jartzea. Berriro ere, agintariek dute boterea zer esan eta zer ezkutatu eraba-kitzeko. Gustatzen ez zaizkien gauzen ingu-ruan, hobe ez hitz eginda. Erraustegia hobe ez gehiegi aipatuta hedabideetan, eta gutxia-go haren kontrako argudioekin. “Zergatik ez



eneritz albizu

Informazioa ematea eta jasotzea eskubide bat da, eta hura defendatu behar da, mamia gustatu ala ez


erabili boterea komeni ez zaidana tapatzeko? Nik agintzen dut, ni aukeratu nauzue... zilegi da”.

Egin itxi zuten, *Egunkaria* itxi ziguten, nahiago zutelako isiltasuna. Informatzeko eskubidea ezerezean utzi zuten beraiena defenditzeko; lanpostuak suntsitu zituzten. Hori guztia egin zuten eta egingo dute, onartzen delako agintean egoteak denerako eskubi-dea ematen duela. Oraingoan, ez digute erredakzioko atea itxi, baina begiak eta ahoa estali dizkigute: ez al da antzekotasunik?

Herritarrentzat jarraituko dugu

Prentsa bide bat da herritarrek informatu eta hezteko, eta hausnarketa bideratzeko. Sentitzen dugu, baina dagoeneko ez gara isilik egoten eta obeditzen ikasi genuen haurrak, eta gure lana egingo dugu: herritarrengatik eta herritarrentzat.

Ohar bat agintari guztientzat, salbuespe-nik gabe: Informatzea eta informazioa jasot-zea eskubide bat da, eta hura defendatu behar da, informazioaren mamia gustatu ala ez. Ez du balio bat-zuetan haren gorazarre egite-ak eta besteetan, zentsura erabiltzen saiatzeak.*



Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hilero-hiler



uztarria

uztarria@uztarria.com

943 15 03 58

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||




GORA. Eman bizia euskarari.

Azpeitiko odol-emaileek herritarrak odola ematera deitu dituzte, euskara hutsean, noski. Euskararen osasuna ona izan dadin primerako saiakera, benetan.  **Uztarrria**



BEHERA. Euskara zulatuta.

Herriko auto-konponketa tailer bateko kartela irakurrita, esan daiteke euskarak ez duela konponketarik behar. Ea kartelak euskaraz idazten hasten garen!  **Uztarrria**



Olatz Prat.

|||ESANA DAGO|||

III “Film bateko musika bandan lan egitean konturatzen zara, nola ematen dion zentzua musikaren elementu bakoitzak irudiari”
Musikaria

III “Sentimenduak adierazteko beste euskarri bat da musika”

OLATZ PRAT
Musikaria

III “Garrantzitsua da
zer sentitzen
dugun kaleratzea,
eta horren atzean
lan handia dago,
ikusten ez bada ere”

OLATZ BEREZIARTUA

PROXIMITY  **AIZPURU**
CUSTOMER

Tel.: 943 81 23 59 aizpuru@aizpuru.net
 Fax.: 943 81 22 81 www.aizpuru.net

Arretxe 17, 20730 AZPEITIA
 Zure autoak behar duen edozertarakol

 **Aiertza Autoak**
CITROËN 940.811.915 - AZUPITUA
aiertzaautoak@telefonica.net

NOTA GUZTIENTAKO AUTOEN KONPONKETAK

Buklea

Puf, hau da hau abiadura. Dena azkar doa, oso azkar, azkarregi. Zer egunetan bizi naizen badakit baina zer urtetan ez. Hau dek hau zahartzie! Astelehen goizean ostirala iris-tea ezinezko ikusten genuen sasoia joan zen; orain, momentua luze egin liteke, baina urteak, hilabeteak eta egunak, denak, *Txikiye* bihurguneetan, atzea oker-okeregin da baina biziago doaz. Martxa honetan, 100 urte harapatzea errezegia iruditzen zait.

Maleta egin, metropolia utzi eta udako kolonian gaude. Bertako natiboak (Aitorren garaitik erroak bertan sustraituta dauzkatenak)


bertako agintariekin haserretzen dira gure erruz euren bizi kalitatea kaxkartzen delako. Ni neu, beti, nagoen tokioa sentitzen naiz. Egon naizen leku guztietan etxeko sentitu naiz. Mare Nostrumean barrena noraezean dabilzan gizakideak ere ahal duten lekuan etxeko sentitzea nahiko nuke (orain ere neure burua zuritu eta lasai gelditu naiz. Urbieta: hitz gutxiago eta ekintza gehiago).

Munduko aldizkaririk onena zure etxera iristen denean, zauden tokian zaudela, herriko festa jendetsuenak hastear izango dira, suzia lehertzeaz. Herritar askorentzat

urte gogorrek dira, baina badirudi ziaboga eman eta norabidea zuzentzen ari garela. Sufrizten ari denarekin elkartasun osoa, babes osoa. Argia ikusten hasi direnei eta, arazoak arazo, beti eguzki epelean egon direnei, fetei zuku guztia atera diezaietela. Eta gazteoi, gazte zaretenez, etxekoen txapei entzungor egin eta beldurrik gabe barruak eta bazterrak erre, erre eta erre. Bestela galdetu Patxiri zuen gurasoak nola ibiltzen ziren. Beno, gurasoak eta... aitona-amonak ere bai (patxiandia).

Feston, udon eta oporron!!!*

|||||||txetxu urbieta|||||||



IKUSTEKOA!|||||||



▲BIDEGORRIAREN ALDEKO ALDARRIA LEIHOETARA.

Azpeitia-Urrestilla bidegorria egitea hitzartuta utzi zuten aurreko agintaldian Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baina, agintaldi berriarekin, momentuz ezerezean da asmoa. Eta Urrestillan ez daude konforme. Ekainean martxa jendetsua egin zuten eta gorritz bete dituzte leihoak eta balkoiak, bidegorria eskatuz jarraituko dutela gogoratzeko.. 🗨️ **Mailo Oiarzabal***

UZAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Spaghetti Western

VALEN GARCIA. Pozik hartzen dira Valen Garciak aurkeztu dizkigun moduko proiektuak. Garcia ezaguna da herrian argazigintza arloan. Ezin ukatu zinematik asko duela argazkigintzatik eta agian horregatik, Garciaren zaletasuna. Hori gutxi balitz, zinema, argazkia, irudia, testua... batzen dituen proiektua du azpeitiarrak esku artean: 'Spaghetti Western'-aren ibilbidea jasotzen duen liburu mardula. Modu kolaboratiboan nahi du lortu aurrekontua, eta ez zaio asko falta. Ea lortzen duen.



alex silva



Tradizioak tradizio

HARRI-JASOTZAILEA. Euskaldunon karikaturak egiteko erabiltzen da askotan harri-jasotzailearen figura. Orain arte oso geurea den tradizioztat har genezakeen, baina gure ohiturak pixkanaka zabaltzen doaz. Gure gizartearen mestizaia erakusle izango ote da Elias Perez harri-jasotzaile azpeitiar-hondurarra? Garbi dago gure gizarte pixkanaka kosmopolitagoa bihurtzen ari dela.



Udan udakoaz!

BERTAKO ZAPOREAK. Ederra da Loiolako zelaia jendez gainezka ikustea. Loiola izango da lehen euskal multinazionalaren sede-zentrala, gure inguruko turismo altxorrik handienetakoa. Baina ederrago

ikusten da bere itzalpean gure bertako zapore eta kalitatezko produktuekin osatutako katak jartzen direnean. Hori bai, zaporeak udara egozituta: Inaxio helatua, Idiazabal izozkia... Uda gozatzeko eskaintza!✳

INKESTA

irakurtzerakoan
e-book-a edo
Liburua nahiago?

Ainitze Agirrezabala

SAGRARIO GURRUTXAGA

79 urte



"Urtebetetzean
tablet-a oparitu
zidaten ilobek, eta
erakusten ari

zaizkit nola funtzionatzen duen,
baina irakurtzerakoan liburuari
orrialdeak pasatzeak bere
xarma du. Liburua esku artean
izatea aberasgarriagoa da".

AINHOA ITURBE

19 urte



"Tablet-ean
nobelak
irakurtzeko
aplikazioa jaitsi

nuen, baina ez zitzaidan
gustatu. Leitzeko garaian
zailagoa eta inpertsonalagoa
da. Nik nahiago dut liburua".*



Saiatu

Haurrak ginenetik "zer izan nahi duzu handitan?", galdetzen ziguten. Bidea erraza zen, ekuazioa sinplea. "X izan nahi baduzu = saiatu + Y ikasketak egin + (nota onak atera)". Esate baterako, kazetaria izan nahi baduzu = saiatu + kazetaritza ikasi + (nota onak atera) eta kitto! Kazetaria izango zara.

Aspaldi galdu nuen nik hitz horiekiko esperantza, aspaldi ikusi ekuazio sinple horrek falta dituen aldagarri guztiak. Estatistikak eskuan hartuta, gustura jakingo nuke zenbat izaten diren, gaur egun, gehitze horretatik emaitza topatzen dutenak.

Unibertsitate ikasketak amaitu nituenetik saiatu hitzaren ondorioa nonbait galdu zela sentitu izan dut. Hala ere, nire ustez behintzat, horretan jarraitu dut ordutik hona. Musu-truk praktika aldiak egin, hizkuntzak ikasi, masterra estudiatu, bestelako lanak egin... Baina, guztia alferrik. Azken momentuan, ordea, azkena galtzen omen den esperantza



Eider bereziartua

hori galtzera nindoala, saiatu hitzak esanahia berreskuratu du. Eneritz Larrañagak itxaropena itzuli dit.

18 urte ditu Eneritzek. Eta nik ezagutzen dudanez ez da egunik pasatu saiatzen ikusi ez dudarik. Beti irribarrea ahoan, ilusioa begietan, baloia eskuetan eta gogor saiatzen ikusi dut. Beti ez zaizkio gauzak ondo irten, noski, baina beti aurrera jarraitu du. Eta saiakera horrek, azkenean, merezitako saria ekarri dio, Ameriketako ametsa.

Eskerrak eman nahi nizkizun, Eneritz, zure indar eta ilusio horrek ni ere blaitu naudelako. Baita egunak joan eta egunak etorri irribarrea eskaini didazulako. Bestalde, zorte onena opa nahi dizut zure abentura berrian, eta ingurukoei indar berezi hori bidaltzen jarrai diezaiezun eskatu nahi dizut. Lanean jarraitu eta emaitza badakizu!

Eta inoiz ez ahaztu, lortu duzun guztia zuk irabazitako da. ZORIONAK!*

galdetzen hasita, abuztuko hilabete
herria pizteko zer aukera proposatzen
dituzu? Uztarrria

Oroimena

Aurreko egunean lehengusuari hots egin nion eta emakume ezezagun baten ahotsak erantzun zidan: "D. Luis no está en casa y la señora tampoco".

Luisito lehengusua, Labe Garaietako Santiago peoiaren biloba, 36ko gerra ondoren iraultzailea izatearren, lan-esparru batean zigortutako Raimundoren iloba, D. Luis bihurtu da. Luisitori gurasoek ez zioten azaldu gerra ondorengo gosetea ezagutu zuenik ezta gure familia, beldurtia izan aurretik, gorria izan zenik ere.

Berak ez daki ezer, ergeldu zaigu baina ez da bere errua, transmisio arazoa izan da.

Oroimena ez da iraganeko kontua. Oroimenak gure identitatea eraiki du: Gutaz dakiguna garelako.

Oroimena da gure etxea. Eta etxe guztiak ezberdinak diren eran, oroimen batzuk pobreak dira, hornitu gabeak; beste batzuk, aldiz, liburuz eta erretratuz beteak. Etxe batzuetan ez da ia inor bizi; beste



miren alcedo

batzuetan senide eta lagun asko daude hainbat gelatan. Errealitatea ulertu ezin dugunean, etxera erretiratzeko gara, eta han, oroimen armairua irekiz, saiatzen gara mundua ulertzen.

Pasa den asteazkenean Donostiako epaitegiaren aurrean Pasaiko sarraskia gogoan izan genuen. 1984an lau gazte Poliziak harrapatu eta fusilatu zituen epaiketarik gabe. Ez zen justizia egin diktadurak segitzen zuelako. Halabeharrez, senideek justizia eskatzen jarraitzen dute, gaia itxi duen epaitegiaren aurrean. Gai batzuk bizirik mantentzea deserosa da, batez ere "kontaketa" hegemonikoa eraikitzekotan.

Eta arma bakarra dugu: Oroitzea. Gure ondokoei eta gure buruari behin eta berriro kontatzea gertatu zena nola bizi genuen.

Historia ezagutzeak saihesten duela akatsak errepikatzea esan ohi dugu. Ez dut uste hala denik, baina behintzat, zeintzuk garen jakitea lortzen dugu.*

HAU HOLAXEENK



Aho kontuak

Hurritz, baldar antzean zabilta oraindik eskuekin, baina hartzea lortzen duzun guztiak lerdetan blai amaitzen du. Nonbait irakurri dut jaioberriok beste ezeren gainetik ahoa duzuela ingurua ikertzeko bide; mihi eta hortzoiekin hartzen diozuela itxura inguratzen gaituenari. Begiak biribildu artean mundua ikusteko tresna nagusia omen da zuentzat ahoa. Gozoa behar du munduak horrela begiratuta.

Pentsatzen jarrita, antzekoa gertatzen da gerora ere. Baditugu helduaroan neurria hartzeko ahoa erabili beste aukerarik ematen ez diguten gauzak. Adibidez, maitasunari zer-

baiten forma emateko garaian aho bat beste-ari itsastea izaten da eskura ditugun aukera urrietatik eraginkorrenetakoa.

Dena den, lasai, laster utziko diozu guztia ahoaz neurtzeari. Bista zorrotzuko zaizu eta eskuak zaildu, ez duzu dena ezpainetara eman beharrik izango. Eskerrak, esango nuke. Komikoa litzateke arropa dendan galtzak probatzerakoan bakeroei haginka jardutea edo liburutegian liburu bat edo bestea hautatzea zaporeagatik, mingaina gidari hartuta.

Baina egun, gure begiek mundua sentitze-ko dituzten zailtasunak ikusita, ez dakit ez ote

zenukeen ahalmen horri eusten saiatu behar: alferrik erakutsiko dizkigute errefuxiatu alde-rraiak edo barkuak ondoratzen Mediterrane-oan. Gure begiek ederki ikasi dute ikusi gabe ikusten. Hurritz, bion artean munduari begi-ratzeko beste modu bat bilatu behar genuke. Beharbada, zure erara egingo bagenu eta egunkariak osorik irentsi, tinta beltzarekin ba-tera noraezean dabiltzanen etsipena nabari-tuko genuke eta ume itoaren irudiak min egingo liguke aho sabaian. Probatu egin behar.*



|||||||xabi borda|||||||

Erotikan Plax!

Harremonak egitasmoa Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalek sustatu eta Arremanitz koope-ratibak garatzen du. Helburu na-gusia hezkidetzat lantzea du, pa-rekidetasuna, tratu ona eta se-xualitatea, bereziki. Ikastetxeetan eta hezkuntza komunitate zabale-an aritzen dira.

Zer duzu gustuko zure lane-an?

Gazteekin sexualitate saioak egi-tea.

Zer helburu duzu zure jardue-nean?

Beste modu bateko pertsonak eta harremanak sortu ditzakegula era-kustea. Erdigunean gure burua eta elkarren zaintza jarritz.

Talde batekin ari zarenean zer da goxagarriena?

Taldea motibatzea eta gustura ikustea.

Zer da gogorrena?

Dagoena ikusi nahi ez izatea nor-baitek. Nola egin horri aurre? Onartuz erresistentziak ditugula.

Zerk ematen dizu plazera?

Malkoak atera arte barre egiteak.

Nola baloratzen duzu Plax!


||||HAIZEA EGIUREN||||

Jaio. 1984ko abuztuak 23.

Herria. Azpeitia.

Bizitokia. Azpeitia.

Lanbidea. Harremonak egitasmoko kidea.



sexologia zerbitzua?

Balorazio ona egiten dugu, jendea gustura dator. Tandem ona egiten du Harremonakekin. Zorte handia dugu herrian doako zerbitzu profesio-nal konfidentziala izanda. Guz-tiok ditugun kezkek, zalantzak... ar-gitzeko eta gure bizitza aberaste-ko aukera polita da. Edurne beza-lako sexologo batekin aritzeak me-rezi du. Guztiak zarete ongi etorriak!
Zerk jartzen zaituzte azpei-tiarak?

Mendiak, pintxo poteoak, muxuek, laztanek, dantzak, ipurdiek, ondo jan eta edateak, jotzeak...

Haizeak nola ligatzen du?

Neu izanda. Umoreak eta saltsak ezin dute falta.

Txoko erotikoren bat?

Mendian zuhaitz bakarti baten azpia. Detaile gehiago nahi? Gon-bidatuta hago nire txokora, kar, kar.

Non jolastuko zenuke gustu-ra?

Arto sail batean galduko nintzate-

ke.

Jaki erotiko bat?

Ez naiz haragi zalea, beno... kar, kar, kar. Baina urdaiazpiko on batek urtu egiten nau.

Kantu erotiko bat?

Batzutan, isiltasuna bera bihurtzen da kantu ederra.

Zerbait gehiago esan nahi?

Bai, herritar zein eragile orok dituzten eskaerak gustu handiz jasoko ditugula eta bizitzeko uda eta bizia plazeretik eta goxamenetik!*

||||edurne mendizabal (Arremanitz-eko kidea)|||||

||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua

www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920

Abuztuan ez dago hitzordurik. Irailean:

hilaren 7an (16:00-19:00) eta 24an (10:00-13:00).



▲ HASIERA.

2010eko San Inazio bezperako txupinazoan, Marea Arroxaren lehen urtean, kaleak musikaz girotzeko proposamena jaso zuten taldeko hainbatek. Zortzi laguneko taldea elkartu eta lau-bost kanturekin eta karro inprobisatu batekin atera ziren kalera.



▲ TALDEAREN KAMISE

Elektrotzaranga sortu eta bi urtera, "kamisetak egin zituztela adierazi du koloretan –horia eta beltza– egin zituzten logoa eskandaloa irudikatzen duen l

Azken 'skandalue'

Sei urteko ibilia eta gero, saninazioetan hartuko du erretiroa Skandalue Elektrotzarangak. Bilduma osatu du Uztarriak unerik "berezienekin". 📎 Ainitze Agirrezabala



TAK.

"taldeak indarra hartu" zuenean, taldeko kide Ekain Artolak. Bi uzten, taldearen logoarekin. Taldearen oozgorailu baten irudia da.

▼ ORDIZIAN, KAMIOIAN.

la urtero jo izan du Eskandalue Elektrotxarangak Ordizian. Taldearen "kontzerturik ezberdinena" izan da. "Ordiziarrek poteoa bizikletan egiten dute, eta karroari tiraka ibili beharrean, kamioi baten atarian joaten gara, bizikletazale guztien aurretik". Lesakan, Bilboko Aste Nagusian... ere askotan jo izan dute.



► BIDANIAN.

Taldearentzat "berezia" izan zen 2014ko ekainaren 8an Bidanian egin zen eskola txikien eguna. "Biraka kantu ofiziala eta bideoklipa grabatzeko aukera" izateaz gain, egunean bertan Porrotxekin *Xalala* abestia kantatzeko abagunea izan zuten.





▲ MAREA ARROXA.

Taldeak izandako eboluzioaren islada da argazkia.
"Denborarekin, izena lortu dugu; estimatuak gara".

▼ EGIN DEZAGUN BIDEA.

2012ko Elkartasun Eguneako kantu lehiaketa irabazi zuten,
eta, ondoren, Flash Mob-a grabatu zuten, Sanagustinen.
Hamabost lagun izatera iritsi ziren taldean.



▼ AZKENETAKO EMANALDIA.

Urte batean baino gehiagotan jo dute karnabaletan.
Argazkian, Txikiteo Elegante Egunean, otsailean.



▼ BARTZELONARA.

Bartzelonako euskal etxeak gonbidatuta bi aldiz izan dira
Katalunian. Argazkian, Graciako kaleetan, 2012ko azaroan.



▲ KILOMETROAK ETA IBILALDIA.

Gipuzkoan eta Bizkaian ikastolen alde antolatzen diren
jaietan ere askotan hartu izan du parte Eskandaluek.
Argazkian, Orioko kilometroetan kontzertua ematen, 2014an.



▲ **ABORDAIA.**

Euskal Herriko festa esanguratsuenetan eman dituzte kontzertuak. Donostiako aste nagusian, esaterako.



▲ **EUSKAL HERRIA ZUZENEAN.**

Euskal Herria Zuzenean bezalako "festibal handi" batean parte hartzeko parada izan zuen Eskandalue elektrotxarangak. "Nahikoa gora-behera" ibili zutela dio Artolak: "Musika kaxa zulatu zitzaigun eta Zuloak taldeak utzi zigun berea. Intzidentzia hura medio, musikari profesionalen backstage-a ezagutzeko aukera izan genuen".*

U

rte askoko ibilbide oparoa du Azpeitiko Udal Musika Bandak, eta aurtengoa berezia ari da izaten, mende eta erdi bete baitu sortu zela. Urtemuga hori eta bandarentzat horren hitzordu garrantzitsua diren saninazioak aitzakia hartuta, bandako hiru belaunaldirekin aritu da solasean Uztarrria. Felix Gurrutxagak (Azpeitia, 1939), Iñigo Larribak (Azpeitia, 1974) eta Sara Ibarzabalek (Azpeitia, 1995) musika dute pasio, eta "lagunarte eder" horretako partaide izatearekin "harro" daude.

Duela 58 urte, San Pedro egunez, egin zuen debuta bandan Gurrutxagak. "Don Julian Barrenetxeak erakutsita nekien solfeoa, eta kuadrillako Epi Larrañagak animatuta hasi nintzen bandan. Gero, Iñaki Alberdik klarinetea jotzen erakutsi zidan, eta 19 urterekin, San Pedro egunean Eskustara egiten zen kalejiran jo nuen estreinakoz". Larriba ere ez da atzo hasia bandan. Azaroan, Santa Zezilia egunean, hiru hamarkada beteko ditu bonbardinoa jotzen. "Betharramistetako koruan Jose Mari Altunarekin geundela, Jose Luis Frantzesena *Schubert* etorri zitzaigun, bandarako jendea behar zutela eta. Gelatik ikaskide mordoska animatu ginen. Kuadrillako bost bandan jotzen jardundakoak gara. Gaur egun, neuk bakarrik jarraitzen dut". Ibarzabalek lausotuta du bandan estrainekoz jo zuen eguna, baina "saninazioetan" izan zela uste du. "Musika eskolan hasi nintzen solfeoa ikasten, eta, gero, zeharkako flauta aukeratu nuen. Handik banda txikira pasatu nintzen, eta 15 urte ingururekin, banda handira".



Azpeitiko Udal Musika Bandaren taldeko argazkia, 1906. urteko abuztuaren lehenean, San Inazio bigarrean.

Bandako kide izateak "konpromiso, inplikazio eta borondate maila handia" eskatzen dituen arren, Larribaren esanetan "gustuko tokian aldaparik ez" da; "ezta bandan hainbeste urtean gogoz kontra jarduterik ere. Lagunarte ona da banda, hori hasteko. Musikal-

ki, asko betetzen nauen zerbait da. Egia da, igual, momenturen batean entsegura joateak pereza ematen duela, edo edade batzuetan kostatu egiten dela San Inazio bezperan, esaterako, 09:00etako dianara jaikitzea. Baina, gero, oso ondo pasatzen dugu. Ent-

Belarrien gozamen

150 urte bete ditu aurten Azpeitiko Udal Musika Bandak. Urtemuga eta saninazioak hizpide, bandako hiru belaunaldirekin hitz egin du Uztarriak. 📝📺 A. Agirrezabala

adierazi duenez, “hogeitaka urtean jende asko ezagutu eta lagun on asko” egin du bandan. “Nahiz eta jendeak banda utzi, harremanari eusten diogu, eta elkarrekin afaltzeko-eta geratzen gara. Izugarrizko lagunartea dugu, eta instrumentuak etxean utzi eta urtean behin egunpasa ere egiten dugu. Bandatik bikote dezente atera da”. Urte guzti hauetan bandarekin kanpora egindako “irterak ere oso politak” izan direla gaineratu du bonbardino jotzaileak. “Leku askotan izan gara. Garai batean, urtero joaten ginen Tolosara zezenetara, baita Zumarragara ere, danborradan jotzera”.

Kantutegiari dagokionez, garaietara egokিতා errepertorio luzea dauka musika bandak. Alabaina, Gurrutxagak dio “kolorerik gabe, lehengo piezak ederragoak” zirela. Larribak dio “bandak bere bilakaera” izan duela, eta “garaietara egokitu” dela. “Asko berritu da kantutegia, eta denetik dugu. Nonbaiten entzun eta gustatu zaizkigun piezak proposatzen dizkiogu Unairi [Frantzesena], ondoren hark moldatu eta guk jo ditzagun. Unai horretan asko laguntzen digu, eta horrek ekarri du errepertorioa asko berritzea. Egia esan, azken urteetan ikaragarritzko lana egin da”. Karnabaletako kontzertua kenduta, gainontzekoetan errepertorio osoa ia berria izan da; “oso pieza gutxi errepikatu ditugu. Horrek, noski, lan handia eskatzen digu guri, etengabe pieza berriak jotzen ikasi behar baitugu”.

Bakoitzak gustuko duen piezaren inguruan galdetuta, Gurrutxagak “Gioachino Rossini-ren *Barbero de Sevilla* obertura” aitatu du. Larriba eta Ibarzabal “pasodobleen eta pelikuletako soinu-banden zaleak” dira. Azken horren esanetan, “*Piratas del Caribe* filmaren soinu banda izugarri gustatzen zait”. La



Sara Ibarzabal, Iñigo Larriba eta Felix Gurrutxaga, bandako kideak. ||| Ainitze Agirrezabala

*guerra de las galaxias*en soinu banda du “gustuko” Larribak, eta “hain zuzen, neuk eskatu nion Unairi partitura ateratzeko”.

“Sasoi onean”

Bandaren osasunaz galdetuta, “sasoi-betean” dagoela adierazi dute hirurek. Azpeitiko Udal Musika Bandak beste 150 urterako karratea izan dezan, “musikarekiko zaletasuna ondorengoei zabaltzea ezinbestekoa” dela esan du Ibarzabalek. Bestalde, Gurrutxagak gogoratu du, garai batean, bandako akademian erakusten zutela solfeoa, “baina aukera hura kendu zuten, eta gaur egun musika eskolatik dator jendea; kopuruz, garai batean baino gutxiago”. Horren harira, Larribak adierazi du, “akademiakoekin alderatuta, musika eskolako ikasleek prestakuntza hobea” dute-

la, baina, era berean, “oraingo bidetik adinez beranduago dator jendea bandara, eta adin batean bost-sei zaletasun badituzu, oso zaila da denera iristea. Eta bandak denbora asko eskatzen du”. Hain zuzen ere, bandako kide izateak eskatzen duen konpromisoagatik, “ez da batere erraza bandako jarduna eta familia uztartzea, eta orain artean ez dugu lortu amarik bandan egotea”. Larribak adierazi duenez, “ume txikiak dituzunean oso zaila da esatea San Inazio egunean goizeko 09:00etan ‘banoa’ eta ‘21:00ak arte okupatuta nago’”. Alabaina, garai batean bandako kide izan eta seme-alabak kozkortuta dituzten ama horiek berriro “bandara bueltatzeko kanpaina” ari dira egiten. Aurten, Santa Zezilia egunean, bandako kide izandakoak eta gaur egunekoak elkartuko dira, kontzertu bat eskaintzeko.

KIMU BAT 25 urte -
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

EÑAUT FRANTZESENA Bandaren historia jaso du liburu batean

“Azpeitiko bandaren historian dagoen arazo handiena da zientio bat aldiz desegin dela”

||| Urte hasieran ekin zion Udal Musika Bandaren historia liburu batean jasotzeko eginkizunari. Lanari azken ukituak emateko Zarautzen dago Eñaut Frantzesena (Azpeitia, 1976). Santa Zezilia egunaren bueltan, azaroaren 19an, aurkeztuko dute liburua.

Zer jaso duzu liburuan?

Liburu historikoei, oro har, datu asko izaten dituzte, eta irakurtzeko garaian, oso astunak dira. Zentzu horretan, zerbait irakurtzera egin nahi izan dugu, testu motzekin, argazki askorekin eta jendearen parte-hartzearekin. Bandaren historia jasotzen duen testu nagusi bat osatu dugu, eta, gero, arloka antolatuta hainbat gai landu ditugu: jantziak, akademia, ekitaldiak, arauak... Bestalde, jendeari kolaborazioak eskatu dizkiogu, bandarekin izan duten harremanaz-eta, eta hainbat anekdota ere bildu dugu.

Informazioa lortzeko bilketak-lana nolakoa izan da?

Alde batetik, Azpeitiko Udalaren

artxihoan izan gara, eta Imanol Eliasen akta liburuak oso baliagarriak izan dira informazioa lortzeko. Udaleko diru-kontuak ere errebasatu ditugu, horietan ere informazio asko baitago: egindako gastuak, nor egon den soldatapean... Kontua da liburua idazteko informazioa biltzen hasitakoa konturatu garelako banda ez zela sortu duela 150 urte; urte batzuk lehenago baizik. Eliasen efemerideen liburuak 1966ko otsailaren 18an jasotzen du bandaren lehen erreferentzia. Historia kontuetan Elias aditua izanik, ez genuen datua egiaztatu. Gero, Eliasen *Azpeitia Historian zehar* liburuan lehenagoko erreferentziak topatu genituen, eta efemerideek jasotzen duten 1966ko otsailaren 18ko dokumentua ez dago.

Nola iritsi zitzaizun liburua idazteko proposamena?

Taldean liburua egiteko asmoa azaldu zenean, nolabait buruan banuen zer eta nola nahi nuen egin. Gero, ez dakit nik buruan

nuena eta paperean argitaratuko dena bera izango den.

Liburua egiterakoan zer ikasi duzu?

Konstantzia behar dela. Edukiari dagokionez, berriz, Azpeitiko bandaren historian dagoen arazo handiena da banda zientio bat aldiz desegin dela. Horrek bandaren funtzionatzeko moduarekin du harremana. Banda udalarena da, baina udalaren menpe langile bakarra dago, zuzendaria. Garai batean, edozer gauza gertatzen zela, banda desegitea erabakitzen zuen alkateak. Adibidez, araubaten arabera, bandako instrumentuak ezin ziren tabernetan erabili. Alabaina, tabernetan festa antolatzen zuten, alkatea azaltzen zen eta zuzendariari esaten zion han ezin zutela jo. Baina musikariek ez zioten kasurik egiten, eta zuzendariari soldata kentzen zioten. Eta horrela, behin eta berriz. Garai batean, herriko musika bandak funtzio guztiak betetzen zituen –berbena funtzioa, prozesio korporazioarena...–. Oso beharrezkoa zen. Banda desegitean, Zumaiko edo Bergarako banda ekartzen zuten. Azken 30 urtean guk ez dugu ezagutu halakorik. Zentzu horretan, ga-

rrantzitsua da talde giroa, pertsonak kudeatzen jakitea. Egon diren arazo guztiak dira pertsonak kudeatzen ez jakiteagatik edo boteare ondo ez erabiltzeagatik.

Bandako kidea izanda, erantzukizun handia al da liburua idaztea?

Bai. Agian, errazagoa izan zitekeen liburua kanpoko norbaitek idaztea, baina neuk nahi nuen idaztea, eta zentzu horretan, sentitzen dut badudala halako konpromisoa bandakoekin.

Bandako kide izateak zertan errazten dizu lan hori? Eta zertan zaildu?

Jendea ezagutzeak eta norengana jo dezakedan jakiteak erraztu dit lana. Horrez gain, historia asko jakinekoak dira edo aurretik entzunda nituen. Zentzu horretan, Imanol Eliasen lanari aitortza bat egin behar zaio. Izan ere, haren liburuak, bai efemerideena eta bai *Azpeitia historian zehar*, oso baliagarriak izan zaizkigu, horietan erreferentzia asko daudelako, gero udalera informazio bila joateko. Udaleko ateak ere zabalik izan ditugu.

Zu hasi zinenean, aita ze-nuen bandako zuzendaria. Orain, zure anaia da zuzendaria.

Bai, alde horretatik historia asko entzundakoa naiz lehendik ere; bai etxean, bai kalean. Baditut hainbat zertzelada liburua ixteko argitu nahi ditudanak, eta aitare-



Eñaut Frantzesena, Zarauzko Musika Plazako kioskoan. ||| **A. Agirrezabala**

Il Partigiano Azpeitiko lehen pizza artisana
egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak, produktib
fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean
etxean egindako masarekin, momentuan eskur
zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

Ildefonso gurrutxaga, 12 behea

IL PARTIGIANO
checco pizza

Turismoa aukeran

Diasporako taldeak Euskal Herrira ekartzeari ekin dio Basque In Motion bidaia agentzia sortu berriak. Ander Ugarte azpeitiarra dago tartean. 📧📞 Mailo Oiarzabal

Hogei edo hogeita hamar laguneko talde bat, argazkiak ateratzen... Azpeitian horrelakoak ez dira ohikoak izan, orain arte", dio Ander Ugartek (Azpeitia, 1981), Loiolara ez ezik herri erdigunera ere gero eta sarriago iristen diren turistez ari dela. Kazetaria da ikasketaz Ugarte —eta jardunez ere izan da—, baina orain turismoaren sektorean ari da lanean. Juan Mari Saizekin (Errenteria, 1970) eta Esther Valenciarekin (Donostia, 1980) batera, Basque In Motion bidaia agentzia berriko bazkidea da azpeitiarra. "Agentzia harkorra" da, nagusiki, beraie-na; hemengoei bidaia eta oporretarako planak saldu beharrean, hona etorri nahi duten edota etortzen diren bisitariei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzte. Internet, web-gunea eta sare sozialak, dira horretarako dituzten tresna nagusiak eta, bereziki, euskal diasporan bilatzen dituzte balizko bezeroak.

Loiolan elkartu dira hiru bazkideak, Urola Gustagarri egitasmoaren edizio berriaren hasierako ekitaldirako, eta hitzordu horren atarian hartu dute Uztarriarekin hitz egiteko tarte.

Erroen bila

Lanbideren turismo zerbitzu eta produktuen salmentarako ikastaro batean ezagutu zuten elkar Basque In Motioneko lagunek, Donostian. Hango irakasle baten ahotik ezagutu zuten 'turismo identitarioa' deritzonaren



Ander Ugarte, Esther Valencia eta Juan Mari Saiz, Loiolako Turismo Bulegoa atzean dutela.

kontzeptua, eta horri eustea erabaki zuten. “Juan Mari [Saiz] izan zen ideologoa –dio Esther Valenciak–, berak ‘fixxatu’ gintuen besteak”. Hasierako taldean beste kide bat zuten, baina hark ezin izan zuen proiektuarekin jarraitu, eta orduan ‘fixxatu’ zuten Ugarte.

Azpeitiarrak azaldu du, hain zuzen ere, turismo identitarioaren kontzeptua nola ulertzen duten: “Euskal Herria turistakoki beste era batera erakusteko sentitzen genuen behararekin lotzen dugu definizio edo etiketa hori. Hona etortzen diren turista asko guk ‘argazki safaria’ esaten dioguna egitera ohituta daude: autobusean alde batetik bestera, Euskal Herriko toki polit denak bisitatzen dituzte, argazki pila bat ateratzen dute, baina ez dute bizi toki horiek benetan eskaintzen dutena. Identitatean oinarritutako turismoaren funtsa, berriz, euskal nortasunean, kulturaren edo ohituretan sakontzen duten esperientziak eskaintzea da, bisitariei ezagutaraztea eta biziartzea”.

Biziaraztean dago gakoa Valenciarentzat, “parte har dezatela. Gure balizko bezeroek



“Zertara etorri zarete hona?”

Loiolara urte osoan iristen den turista emaria herrira erakartzea izan da, aspalditik, Azpeitiko turismo sustapenaren erronka. Ahalegin bat baino gehiago egin dituzte helburu horrekin eta, pixkanaka, fruitua ematen ari direla ematen du. Hala uste du Ander Ugartek: “Gero eta jende gehiago ‘sartzen’ da herrira, Loiolatik, eta trenaren museotik ere bai. Inaziotar guñeak, parrokia, Alde Zaharra, garbitokia... Betidanik hor egon diren aberastasunen gaineko informazioa hedatzeko ahalegina egin da, gero eta jende gehiagorengana iristen da informazio hori, eta nabari da”.

Herriarrak oro har, eta ostalariak bereziki, fenomeno horretaz jabetu direla iritzi dio Ugartek, “eta lehen abuztuan ateak itxita izaten zituzten tabernak orain irekita egoten dira”. Hala ere, herrira turistak hartzeko prestatuta ikusten al duen galdetuta, ezetz erantzun du. “Zuk Azpeitiak eskaintzeko duen guztia sal dezakezu, baina abuztuan iristen diren bisitariek zera ikusten dute: ‘Zenbat gauza polit dauden hemen, baina herria hilda dago!’. Esan bezala, batik bat ostalariak ari dira aldagetak konturatzen. Bestetik, dendak-eta ezin dituzu abuztuan ere irekita egotera behartu... Baina uste dut aldagaketa ematen ari dela, pixkanaka bada ere”.

Ostalaritzan ere arlo honetan bada zer hobetua, hala ere, azpeitiarrarentzat. “Gertatu izan da –kontatu du–, turistak taberna batera joatea eta zerbitzariak esatea: ‘Zertara etorri zarete hona, hemen ez dago-eta ikusteko ezer’. Kontzientziazio lan bat egin beharra dago, informazioa eta formazioa landu behar dira, batik bat ostalariarekin eta merkatariekin”.

Adibide horrek erakusten du, Juan Mari Saizentzat, “sektore turistikoaren zailtasuna. Ez da nahikoa bisitariak erakartzea, zerbitzuak eskaini behar zaizkie. Eta ostalariak ahaleginerako prest egon daitezke, baina bultzada bat

badute jada euskal nortasuna eta sentimendua; eta guk nahi duguna da, hona etortzen direnean etxean bezala sentitzea”. Erroen bila, “arbasoen lurra” ezagutzera, etorri nahi dute euskal diasporakoek, eta bezeroek hori lor dezaten haien neurritik egindako egonaldia eskaintzen dizkiete. Bidaia “bezeroekin batera diseinatzen” dituztela nabarmendu dute, “hori izan daiteke bereizten gaituena. Ez diegu esaten ‘hau da egingo duzuen bidaia’. Aholkuak ematen dizkiegu, eskaintzak mahai gainean jarri. Baina bezeroa da zer nahi duen aukeratzeko duena eta azken hitza duena”.

Eskaintzen duten horretan, berriz, aukera zabala da, eta pertsonalizatua. Joan den udaberrian ekarri zuten diasporako lehen bisitari taldea Euskal Herria, Argentinako Saladillo-tik. Loiola Hotelean hartu zuten ostatu argentinarrak, hamabost egunez. Azpeitian, esaterako, udaletxean hartu zituen alkateak; Legazpiko alkateak ere egin zuten harrera eta han, gainera, festetako danborradan parte hartzeko aukera izan zuten. Beraientzat prestatutako herri kirol saioa Elgoibarren, pilota ezagutu eta jokatu Azkoitian... Horiek dira Saladillokoek hemengo egonaldian egin zituztenetako batzuk.

Gidari lanak eta gehiago

Urriaren hartuko dute bigarren taldea, hura ere Argentinakoa, Juan de Garai Fundaziokoa. “Amerikan bakarrik, lehen bi abizenetako bat edo biak euskaldunak dituzten 60 milioi pertsona daude”, dio Ander Ugartek. Balizko bezeroen poltsarik ez zaie falta, beraz.

Baina diasporako antolatutako bidaia ez dira Basque In Motionek eskaintzen duen zerbitzu bakarra. Esaterako, bisita gidatuak egiten dituzte. “Alderdi hori batik bat hemen garatzen dugu, San Inaziotar guñekin lotuta. Gero eta jende gehiago etortzen da gurrera, eta zerbitzu horiek ere gero eta gehiago eskatzen dituzte”. Eta diasporara itzulita, erroen bila dabilatzane zuzendutako genealogia zerbitzua ere ematen dute, Juan Bautista Mendizabalekin elkarlanean, beren abizenen jatorria ezagutu nahi dutenentzat.

Ugartek, Valenciak eta Saizek argi dute gurean turismoa sektore ekonomiko garrantzitsua dela –“Gipuzkoan BPGren ia %10”, azpimarratu du azpeitiarrak–, eta neurriko inbertsioa merezi duelakoan daude. Beraientzat lanerako aukera izaten ari da turismoa, eta turismoa aukeran eskaintzen diete bezeroei.✱

BURUZ BURU

Duda egiten duenaren parabola

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut atrebentzia handiegia dela niretzat zer-baiten inguruan edozer esatea; posizioen bat edo beste baieztatzea. Hori gutxi ez eta ariketa hori publiko egiten bada, ausardia zena hekatonbe bihur daiteke. Beti errepikatu izan dut barrura begira idazten dudala, nire buruarentzat; berdin didala bai euskarriak bai eta irakurle potentzialak ere.

Nire buruarentzat idazteak ondorio zuzen bat du aldarte honetan: nire burua eraiki eta deseraikitzen jardutea une oro. Berdin dio irakurlearen erreakzioak, ez baitu berak inolako paperik lerro hauetan. Esan nahi da: irakurleak berari zuzendutako erasotzat dituen esanak nik nire *antzinako* sinesmenei zuzen-derik dardoak baino ez dira. Horregatik bukatzen du batek euskalduntasunaz, Estatuaz, demokraziaz eta delako dogma garaikideez irakurketa *estrabaganteak* egiten. Ez baitago inondik-inora seguru ezertaz; zalantzak baino ez bai-

titu.

Deseraikitzen duenari, behin aldarte horretara iritsita, zera gertatzen zaio baina: ezaren doktrinarekin kideitzen dela. *Baietzak* ez duelako konbentzitzen dabil bat *ezetza* esploratzen. Ez kontra egiteagatik –puntu batera arte–, ideien eta posturen estatikotasuna hausteagatik.

Ezetzaren lema gidatuta ekiteak ondorio probable bi ditu, baina, baldin eta aldarte horretara iritsiz gero: aurrena, baliteke bietan zentzudunena izatea, da: *Xoxoteko Lino* zena *txabola* okupatu eta gazta eginez bizitzen bukatzea. Bigarrena Roberto Bolañok ez dakit noiz ez dakit zeini eginiko adierazpena da, zeinetan bera ezaugarritzen duen elo-kuentzia ironikoaz zion honelako *boutade* bat: *gaztetan ez zitzaidan gustatzen komunisten ados egon behar unisono klerikala, eta troskista egin nintzen. Pasatu zena da troskistekin nenbilela ez zitzaidala troskisten*



||||||| **jurgi arruti** |||||

ados egon beharra gustatzen, eta anarkista amaitu nuen. Behin Espainian anarkista asko ezagutzen hasi nintzen eta anarkista izateari utzi nion. Ados egon beharrak asko izzoratzen nau.

Behin kontaketakoa aldarte honetara iritsia nahiko ziur esan daiteke ibilbide hau egiten duten gehienek amaitzen dutela Bolañoren aulki berean eserita. Eta batek, behin aldarte horretara iritsiz gero, pronostiko guztien aurka, erlatibista izaten bukatzen du. Edo solipsista, edo subjektibista. Dena ulertzen, dena ententitzen, dena arrazoitzen. Gogo ematen dionean edozer defendatzeko modua izateko ezinbestekoa baita hori. Eta erlatibista baten perpausa bata baino ez da: baietza. Denari bai. Edo ez. Kasu honetan berdina baita Linoren txabolara joaten ez garen heinean.

Baina bizitza honetan badago errealitate objektibo bat zeinetan *ona* eta *txarra* dauden.

Zalantzak garaiz

Ez zitzaizun gehiegi gustatu baina lehendabizikoan esan nizun Semprunek –erbestea, kontzentrazio esparruak, komunismoa, idazle frantsesa, ministro espainiarra, beti kezka intelektuala– adierazten zuen hura: bere nortasuna eraikitzen igaro zuela bizitzaren lehen erdia eta hura deseraikitzen bigarren erdia. Bide horretan, zituen sinesmen, dogma eta ziurtasun guzti haiek bazterrerara boteak zituela baina, ilusio guztiak zermatzala gainean bizirik eta piztuta. Gaztetasuna eta zahartzaroaren konparazioaren harira etorri zitzaidan Semprunen adierazpen hori.

Horretan jarraitzen dut, argudioari egotz dakizkion ñabardurak onartu edo aintzat hartzeko prest gehienetan. Ez ahaztu. Igarotzen den egun bakoitzak zahar izatearen meta egun bat handitzen du, zahartzaroa egun bat hurbilagozten du, eta gaztetasunari egun bat kentzen dio, inoiz itzuliko ez dena, inoiz itzuli-

ko ez zaiona. Bitarte horretan, nahi gabe ere, ikasi egiten da eta ikasia pilatu ia-ia jakintsu izan arte. Berez asko eta asko jakintsu ustearen zamarekin bizitzen, eta hiltzen, dira, ikasi duten guzti hori gaztetan, osotasunean bizi izateko jakin beharrik behar ez den aro horretan, zahartuta gero dakiten guztia, jakin balute haiek errendituko zituenik ez zela jaioko ustean.

Beste askok, jende zintzoek esate baterako, zenbat eta gehiago jakin orduan eta gabezia gehiago ikusten dizkiete beren buruei. Zalantza pentsamenduaren funtsezko oinarritzat daukate eta ongi ulertzen dute auzi baten inguruan arrazonamendu ezberdin asko egon daitezkeela, guztiak bidezkoak eta guztiak beharrezkoak aukera egoki bat egiteko. Ongi dakite zalantzarik eza adimenik ezaren pareko gaitza dela. Zalantzak laguntzen die besteena onartzen eta ulertzen, gauzen zergatiak ikasten. Zalantzak laguntzen die ja-



||||||| **ramon etxezarreta** |||||

rrerak eta ekintzak sailkatzen haien egokitasunak kalifikatzen, beti ere kontuan izanik *ona* ala *txarra* disjuntiboaren aurrean aritu beharra askotan izango dutela, edo *ona* eta *txar*ren arteko tarte luzean maila asko daudela.

Ongi etorri zalantzara Jurgi, arrazoi izan gabe ere bizi daiteke, eta beti arrazoi izan beharra gaitza da, oso gaitz txarra. Borobil eta gordin erantzun dizkidazu nireak, bortiz eta zuzen bota dizkidazu zureak. Eta gaur zalantzak aitortzen hasi zatzaizkit, ohoragarri ageri zatzaizkit nire aurrean. Zalantzak giza-koi bilakarazten zaitu, bihozko, guztiokiko jarrrera ireki eta malgua adierazten laguntzen dizu.

Ez da, nire irtiz, bide aldrebesa. Zalantzak eduki egin behar dira baina, horiekin ala horien gainetik, erabakiak ere hartu beharrekoak dira, zalantzak uxatzekoak diren bezala. Beti bilatzen diogu orori kezka.✱



@Eregi_LEK



Eregi Euskara Eta Komunikazioa

Ekin  eraiki

 **EREGI**

Zerbitzuak

Marka nortasuna

- Aholkularitza eta kudeaketa

Komunikazio estrategia

- Komunikazio planak
- Komunikazio kanpainak

Irudia eta diseinua

- Identitate bisuala: logotipoa eta euskarrien diseinua
- Argitalpenak: liburuak, aldizkariak, katalogoak...
- Seinaleztapena
- Argazkiak
- Ilustrazioak
- Bideoak

Web

- Web orriak
- Sare sozialak
- Itablel/smartphone aplikazioak

Harreman publikoak

- Prentsa bulegoa
- Ekitaldiak, produktu aurkezpenak...

Hizkuntzak

- Testuen erredakzioa
- Itzulpenak eta zuzenketa
- Euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa, katalana, galegoa...



Goiko kalca, 5 3A 20/30 Azpeltia (Gipuzkoa)



943 08 06 88



eregi@eregi.eus



www.eregi.eus

Zer tokatuko zait?

Azpeitiar belaunaldi askoren ohitura da Uztarriaren tonbolan jokatzea. Uztailaren 23an ireki zituen ateak tonbolak Goikokalen, eta opari pila banatuko ditu santioetan eta saninazioetan.  Uztarria

Azken urteetako arrakasta ikusita, aurrean ere Uztarria Komunikazio Taldeak santioetan eta saninazioetan tonbola jarriko du, zortzigarren urtez jarraian.

Iaz bezala, aurrean ere festetako tonbola Goikokalen izango da, Egaña gozotegiaren eta Bankoaren plazaratxoan, Banesto banketxearen egoitza lekuan. Aurrekoetan bezala, Jabier Iruretak musutrik utzitako lekuan, alegia.

Oparien zerrenda luzea izango da. Eta, saridun txartelez gain, tonbola ixtean egingo den azken zozketan banatuko ditugun sariak ere ez dira gutxi izango: Ukabik emandako tableta, Eroski eta Halcon bidai-agentziek emandako asteburuko egonaldi bana (bi lagunentzat) eta Odriozola Ardoak-ek emandako saski bikaina.

Eta beste behin eskerrak eman

III DATUAK

III **Zer.** Uztarriaren tonbola.

III **Eguna.** Uztailak 23, 24, 25, 30, 31 eta abuztuak 1.

III **Ordua.** 12:00-15:00 eta 17:00-gauerdia. III **Tokia.**

Goikokalen, Egaña aurrean.

III **Antolatzailea.** Uztarria Komunikazio Taldea.

beharrean da Uztarria, lokal jabe-ari bezala, tonbola posible egiten duten laguntzaile guztiei. Udalak, Bertan merkatarien elkarteak, eta herriko hainbat saltokik, tabernek, jatetxek, ileapaindegik eta abarrek babestu dute ekimena. Uztarriak diru-sarrera propioak lortzeko abian jarri zuen proiektu honetan denen laguntza oinarrikoa delako, eskerrak asko guztiei, benetan!*

III UZTARRIAREN TONBOLA

2 boleto euro batean. Bost eurotan 12 boleto, 10 eurotan 25, eta 20 euroren truke 50 boleto.

8 . urtez jarraian. Lehen sei urtetan, Erdikalean jarri zuen tonbola Uztarriak. Iaz eta aurtengoan, berriz, Goikokalen.*



Uztarriako langileak tonbolan lanean, Erdi Kaleko lekuan. III **Urola Kostako Hitza**

III BESTERIK

1 Azoka herritik, laugarrenez

Iraileko azokaren laugarren edizio honetan, urteroko azokaz gain, umeentzako eskaintzak, kultur emanaldiak, hitzaldiak eta abar luzeak osatuko dute egitaraua. Iraileko azokarekin abiatu eta Sanjuandegikoa ere urteroko hitzordu bihurtu da abenduan.

III **Eguna.** Irailak 16 eta 17 (ostirala eta zapatua). III **Ordua.** Egun osoko egitaraua. III **Tokia.** Herriko plaza eta kaleak.. III **Antolatzailea.** Azoka Herritik.

2 Azpeitia motor festibala

Goizean, 10:00etan, moto irteera egingo dute. Ondoren, metal poteoa izango da, Alde Zaharrean. Bazkaria, 15:00etan, Perez Arregi plazan izango da, eta eguraldiak lagunduko ez balu, berriz, Sanagustinen. Arratsaldean, 18:00etatik aurrera, kontzertuak izango dira, Perez Arregin: Baron Rojo, Elbereth, Euphoric, Everlevel eta Hyronike.

III **Eguna.** Irailak 3 (zapatua). III **Ordua.** Egun osoko egitaraua. III **Tokia.** Perez Arregi plaza. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Tabernarien Elkartea.*

III Azpeitiko ekimenen informazio gehiago: uztarria.eus/agenda



komunitaria

bertan
azpeitiko merkatari elkarteak

Ukabi
informatika



Talasoterapia
Zelai

Halcon



sanagustin



EROSKI / bidaiak

LAZKUNE

ELVEGAVIA
TABERNA

GAROA
kafetegia



Garai
komunikazio eta informazio

Nagaitz
kafetegia



adab

IZABO
TABERNA

KIROLDEGIKO
TABERNA
Jone & Maikar

MAITANE
LOKALDE T. 501-511 - 401 51 43 54

Zuha

piku
TABERNA



LOGI EDEP

L3 LAUBIDE

ORBEGOZO
FERRITEGIA

KIMETZ

aliur enpresak

Mikel Uría
Jatetxea

LARATZ
kafetegia

Ongi Etorri
Jatetxea

Auntxa
Erretetgia

OÑATZ
taberna



AÑOTA
TABERNA

EGARA



taberna
azpeltia

Hotel Arriaga
Laydu

juantxotxiki
TABERNA

ETXAUN
TABERNA



korrale
taberna



Atsedu
Kafetegia

UROLA EXPRES

A&M

GINA
KAFETEGIA ORDEGIA

JATETXEA
LANDETA
SAGARDOTEGIA

inka
TABERNA

IREDE
estetika

ZUHATZ
TABERNA



Kantoi

Meola
jateketa - kafetegia

D.A.

menats
ileapaindegia

Eduene
ileapaindegia



jai-alai
TABERNA

patxo
erretetgia



OLAKOR

TOPO

Baigera 2

Baigera

MENDIZABAL
ERRETEGIA

HARTZUBIA
gizagardetgia



ERREKA

KINTTELA ileapaindegia

JIN CLARCK

banka kooperatiboa



LABORAL
kutxa

uztarria

azpeitiko komunikazio taldea

|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



	EH-ko lurraldea		▼	Goratasun		▼	Itxurak		▼	Sagar mota		▼	Esako
	Deitura		▶	Da, niri		▼	Galioa		▼	Edari bizi		▼	
			▶			▼			▼			▼	
	Abarrots, burrunba		▶			▼			▼			▼	
Astiro, poliki													
Amerikako estatua	▼	Eguzkia	▶	▼				Hizki baten izena	▶				
Hizkuntza-laritza		Izena						Gorotza					
▶		▼						▼		Bromoa	▶		
										Ugaztun hausnarkari			
Gizon izena	▶				Zapata-aztala	▶				▼		Asiako estatua	
Ugaztun haragijaleak					Zenbaki bakoiti								
▶					▼				Nasa	▶		▼	
									Zerga ezaguna				
Behiaren arbaso	▶			Arbasoa	▶				▼		Kontso-nantea	▶	
Norat atzikia				Bokal errepikatua							Bizkaiko herria		
▶			Bururatu	▶	▼			Denbora tartea	▶		▼		
			Potasioa					Bokala					
Ibargoitiko kontzejua	▶		▼		Nazional-sozialistak	▶		▼					

* Idazle azpeitiarra




Egilea: Luma

|||SUDOKUA|||||

		5	3					
		6	5	2	8			
				7	1		8	6
	2					1		8
	1			4			3	
8		3					7	
9	6		4	8				
			2	1	5	4		
					6	8		

||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Irailaren 23a (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola Ardoak-ek emandako ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 ABISUA HORRELAKOA IZAN ZEN

2 ABIZEN EZAGUNA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

K	A	I	Z	A	N	●	O	K	Z	I	●
A	E	P	E	●	U	T	O	●	T	A	R
R	●	A	B	A	S	A	●	O	R	U	●
I	A	K	●	K	A	B	A	R	A	G	I
●	I	O	K	A	T	●	I	A	N	U	●
R	B	●	A	K	I	T	A	M	A	R	G
A	E	N	E	●	A	I	K	E	●	U	●
S	T	O	A	T	A	R	Z	●			
E	R	E	I	G	A	Z	I	E			
●	U	●	E	●	G	●	B	●			

SUDOKUA

3	2	8	9	6	7	1	5	4
9	9	4	5	1	2	8	7	3
1	5	7	3	8	4	2	6	9
2	7	9	6	5	1	3	4	8
5	3	6	2	4	8	7	1	9
8	4	1	7	3	9	6	2	5
6	8	5	1	7	6	4	3	2
4	1	3	8	2	5	9	6	7
7	6	2	4	9	3	5	8	1

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Zazpikan 2 Klinika

||| UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Joxe Larrañaga
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 185. lehiaketaren irabazlea. Odriozola upategiak emandako ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, bi ardo botilako sorta eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rio
zola

ELKARRIZKETA ekain ibarguren (medalla)

“gauza sinpleekin ikuskizun ederra eskaintzea posible da”

Badira urte batzuk Ekain Ibar-guren (Azpeitia, 1996) zirkuaren inguruan interesatzen hasi zela. Antzerkian hasi zen aurrena, eta bere bidetari ekin zion ondoren, pailazoen mundura salto eginda. Gaur egun, ikuskizun propioa du: *Ekain Txou*.

Nolatan hasi zinen zirkuaren munduan?

Haurra nintzenetik atsegin dut pailazoen mundua. Txikitan asko gustatzen zitzaizkidan pailazoek transmititzen zuten poztasuna, baita horien benetako aurpegia nolakoa izango den jakitearen misterioa ere. Txikia nintzela, kasualitatez, ETB1en eskaintzen zuten *Tic-tac circus* programaren berri izan nuen. Goizero 07:00etan ematen zuten, eta hori ikusteko esnatzen nintzen egunero. Bertan ezagutu nituen pailazoen munduan sona handia duten artistak, aurrerago nire erreferente izan direnak.

Pailazo izaten ikasi egiten al da?

Pailazo izateko ez dut uste eskola batera joan behar denik. Ez dut

irakaslerik izan sekula, pixkanaka joan naiz ikusitakoarekin ikasten. Antzerkia egiteak asko lagundu dit, eta baita urte batzuk malabarista bezala aritzeak ere. Bilboko Zirkozaurre eskolan hilabete batzuk igaro nituen, malabarismo eskolak jasotzen. Hasieran ondo moldatu nintzen, baina gerora motz gelditu zitzaizkidan. Maila bat aurrerago nengoen, eta hobetzen jarraitu nahi nuen. Donostia-ko lokal baten berri izan nuen orduan, Ilargi Berdea izena duena. Hor ez dira eskolak ematen, norberak bere entrenamenduak egin ahal izateko espazioa da. Martxo-



an hasi nintzen hara joaten, eta oso gustura nago Donostian. Elkar laguntzen gara eta elkarrengandik ikasten dugu..

Zerk bereizten du *Ekain Txou* gainerako ikuskizunetatik?

Sinplea bezain polita dela. Garai bateko titiriteroen giroa sortu eta eskaini nahi nien ikus-entzuleei; izan ere, gaur egun ez dago halako asko. Jendeari esan nahi nioke ez izateko aurreiritzirik, gauza sinpleekin ikuskizun ederrak eskaintzea posible dela. Badirudi kalitatezko emanaldi bat eskaintzeko izugarritzko baliabide teknikoak behar direla, baina espektakulu ona emateko ez dira ezinbestekoak argi eta soinu ekipoa izatea.

Zein asmo dituzu aurrerantzean?

Nire asmoak dira pailazoen munduan jarraitzea. Ikasketak utzi nituen honetan aritzeko. Planak baino gehiago ametsak dira, zirkuaren mundutik bizit-

EFEMERIDEAK

1993

Trenaren museoa. Bi bagoi erre zituzten.

1997

Lurrikara txiki bat. Sentitu zen herrian, 3,6 gradukoa.

2014

Pilar Aizpitarte. Aktorea hil zen.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztartaria Kultur Koordinakundea.*

INKESTA

Abenduko botoa mantenduko duzu ekainaren 26an?

Bai. %67,86.

Ez. %23,21.

Ez dut bozkatuko. %8,93.

Oraingo galdera. Plazan egoteko ohiturarik bai txupinazoan?

KOLORAZIO SISTEMA BOTANIKOA
%100 BELAR OSAGAIEKIN
%100 PRODUKTU NATURALAK

ANA.bio
ILEA PAINDEGI BIOLOGIKO

AGITRE AUZUNA • AZPEITIA • TEL. 943 503 936 • IAN

Ura

MAITE BEOBIDE igeriketako irakaslea

Udan gehiago izerditzten gara, tenperaturak gora egiten duelako; beraz, gure behar hidrikoak handiagoak izaten dira. Egardia sentitzen dugu behar horiek bete ahal izateko, baina orokorrean, arreta txikia ematen diogu edaten dugun horri.

Gauzak asko aldatu dira azken urteotan, edateko ohiturei dagokienez. Freskagarrien kontsumoa asko gehitu da, gaztetxoetan, batik bat. Hori ez dira egardia kentzeko edariak, ezta behar hidrikoak betetzeko aukera egokienak ere. Azukre eta kilokaloria ugari izateaz gain, egardia areagotzen dute.

Azken azterketen arabera, ikertutako biztanleriaren erdiek ez zituzten betetzen EFSAren (European Food Safety Authority) gomendioak, fluidoaren kontsumoari dagokionez. Beraz, oso garrantzitsua da uraren kontsumoa bultzatzea behar hidrikoak bete ahal izateko (kilokaloria kopurua igo gabe). Ura elikagai bat gehiago da; gorputzarentzat beharrezkoa.

Ohitura onak txikitatik hartzea hobea da, beti garaiz egon arren. Erakutsi diezaiogun gure umeei geu eredu izanez. Ura da aukera onena hidratatzeko eta egardia hasetzeko. Freskagarriak (gasdunak edo gasik gabeak) ez daitezela uraren ordeko bihurtu, une jakinetan hartzeko bakarrik, baizik. Bai neguan, bai udan, ura barra-barra edan!*



aitziber aizpuru



1. Esaerak dio: 'ura eta sua belaunetik behera'...

Arriskua den lekuetan.

2. Zure ohiko ikasleak?

3-9 urte arteko haurrak.

3. Zenbat denbora behar da igerian ikasteko?

Zenbat eta txikiago hasi hobe, beldur gutxiago dugu.

4. Txanoa, derrigorra.

Deserosoa da, baina higiene-araua da.

5. Urari beldurra...

Beldurrak utzi, eta animatu. Onuragarria da oso.

6. Zer igeri estilo

irakasten dituzue?

Crawl eta atzeraka.

7. Uretan txixa egiten duena salatzeke...

Ez dago koloratzailerik. Umeei esaten zaien mitoa da hori.

8. Zu urte osoan bainujantzian...

Beltzaran jartzeko aukera

Ekain
ALBARTARI KLINIKA
Euzkadi Hiria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 18 40
Lanbideak
943 15 18 40

ostadar optika
OPTIKARIK - OPTOMETRIARIK
Jose de Arce, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-810441
AZPEITIA

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK
URBISTONDO MARGOAK
Seibe Auzunea, 35 behea
20730 AZPEITIA - Umut.: 943 81 57 81

ORDULARI
Jose de Arce, 10
Tel. 943 81 52 44

uba
Abolgarritza
Jose de Arce, 10
Tel. 943 81 52 44
Faxa: 943 81 52 44
Gestio. Inmobiliaria

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA DISEÑO
ESKOLA ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Tallia 18:30 - 20:00
Jose de Arce, 10, 2
943 81 52 44
adibizitza@gmail.com
Marraskia urte osoan irakatsi

Objektiboaren bi aldeak

Argazki makinak ehizatzen ez dituen bestelako estanpak ere baditu Garciaren bizitzak.

 Aintzane Larrañaga

Abentura berri batean murgildu da Ainara Garcia (Azpeitia, 1987) argazkilaria. Bederatzi urtez egunkarietako gertakariei irudiak jartzen ibili ostean, “prentsako egunerokotasunaren eromena” albo batera utzi eta bere bideari ekitea erabaki du: “Saturatuta nengoen egiten ari nintzen argazkilari lanarekin, eguneko 24 ordutan telefonoaren menpe egotearekin. Burua zentratu eta proiektu berriei heldu nahi izan diet”. Andoingo Zinema eta Bideo Eskolan Irudi ikasketak egiteko erabakiari jarraiki, argazkilaritzari estu lotuta segitzeko asmoa du Garciak, “denbora hobeto kudeatuta, benetan nahi ditudan argazkiak ateratzeko eta bestelako erronkei heltzeko”.

Garai batean, ordea, argazkilaritza “B plana” izan zela dio Garciak: “Txikitan, Disneyko marrazkilaria izatea zen nire ametsa. Askok gustatu izan zait marraztea eta hortik bizi nahi nuen. Baina Batxilergoa amaitzean, argazkilaritza ikastea erabaki nuen, eta ez naiz batere damutzen egindako aukerarekin”. Orain, prentsa albo batera utzi eta norabide berri bat hartzearekin batera, poliki-poliki marrazteari berrekin diola azaldu du, baina “denbora-pasa gisa soilik”: “Bederatzi urtez era-

bat utzita izan ditut eta orain berriro hasi naiz marrazkiak egiten. Garbi banatu nahi ditut, ordea, lana eta afizioak. Ez dut duela hilabete batzuk argazkiekin gertatzen zitzaidan ‘saturazio’ egoera errepikatzerik nahi; deskonektatzeko marraztu nahi dut, niretzat bakarrik”.

Bada afizio bat, ordea, lanarekin ongi uztartzea lortu duena: bidaiatzea. Argazkilaritza eta bidaiak “elkarrekin ongi ezkontzen diren bi mundu” direla azaldu du Garciak, eta beti eskutik joan direla aitortu du: “Txikitan familia-ekin oporretara joaten nintzenean, bi gauzak deitzen zidaten arreta: batetik, aitaren reflex kamera analogikoak; eta, bestetik, bidaiatzeak eta batetik bestera mugitze hutsak”. Mundua ezagutzeko grinak bere horretan jarraitu du harrezkero, eta lanean hasi orduko, lortutako lehen aurrezkiak bidaiatzeko erabiltzen zituela aitortu du argazkilaria: “Lana topatzen duzunean, gustuko gauzetan gastatu ohi dituzu aurrezkiak; nik, bidaiatzen”. Horrela, pixkanaka, zaletasun berdina zizutzen pertsonekin topo egin du bidean, eta bidaietako argazkiak egitea ogibide bilakatu du.

Jakinduria partekatuz

Prentsako argazkilaritzan emandako urteez

gain, egindako bidaiak sekulako esperientzia eman –eta ematen– diote, eta ekin berri dion bide honetan, jakinduria partekatzea du ardatzetako bat. Argazkilaritza ikastaroak antolatzen eta eskaintzen hasi da azpeitiarra, eta orain arte jasotako erantzunarekin “oso gustura” dagoela adierazi du. Ikasgelak, ordea, ez ditu asko atsegin: “Duela gutxi ikastaro bat eskaini nuen Madrilen, gela itxi batean, eta ez nintzen guztiz eroso sentitu. Nahiago izaten dut kamera eskuetan hartu eta kalera joatea ikasleekin ariketak egitera”.

Maila ezberdinetako ikasleentzat prestatzen ditu kurtsoak; hasiberrientzat eta baita jada esperientzia duten erabiltzaileentzat ere. Batzuetan, “jendea ezagutzeko eta lotsa galtzeko aitzakia paregabea” izan daitekeela aipatu du Garciak: “Jendeari sarritan lotsa ematen dio kamera eskuan hartu eta kalera bakarrik irteteak, eta ikastaro horietan zaletasun berdintsuak dituzten pertsonak ezagutzen dira elkar”.





Ainara Garcia, Budapestera egindako bidaian. ||| **Ainara Garcia**

Duela urte batzuk, lana ezagutzera eman ahal izateko, *El Mundo A Través De Un Visor* izeneko bloga zabaltzeko erabakia hartu zuen Garciak, eta argazkiak igotzeaz gain, testuak lantzen ere hasi zen zehaztasun eta xehetasun gehiagorekin aritzeko. Hitz ego-kiak aurkitzeari “gustua hartu” diola adierazi duen arren, hastapenetan “izugarri” kostatzen zitzaiola aitortu du: “Blogarekin batera ikasten eta gozatzen joan naizen zerbait da idaztea. Hasieran, nagia ematen zidan, baina beharrezkoa zela iruditzen zitzaidan, eta denborarekin gustua hartu diot”. Gainera, maite dituen gaiez aritzea “errazagoa” dela azaldu du azpeitiarrak. Dena dela, “zaletasun” berri horrek badu bere jatorria: “Txikitik ipuin lehiaketa bat irabazi nuen. Harrezkero, idatzi gabe egon arren, bloga behar izan dut aspal-diko zaletasun hura agerian jartzeko”.

Sarearen gazi-gozoek

Gaur egun ohikoa den legez, sare sozialetan

ere badu presentzia argazkilari azpeitiarrak. Blogarekin gertatu bezala, lana munduaren aurrean zabaltzeko “erreminta indartsuak” direlako erabiltzen ditu Facebook, Twitter eta Instagram bezalako sareak. Baina guztia ez da arrosa kolorekoa, eta horiekin “maitasun-gorrito” erlazioa duela adierazi du Garciak: “Erabiltzen jakinez gero, izugarri laguntzen duten tresnak dira ez bairik gabe, eta ez ditut albo batera utziko, baina tentuz ibili behar da. Inongo ekarpenik egiten ez duten gauza pila bat topatzen dituzu sareetan, jendeak guztiguztia partekatzen baitu. Kontuan izan behar da hori edonork ikus dezakeela”.

Bestalde, YouTube bideoen plataforman lehen pausoak ematen hasia da jada argazkilaria, eta hasiera batean, “shock-terapia gisa” ekin ziola aitortu du. Izan ere, jendaurrean hitz egiteak “lotsa” ematen zion azpeitiarrari, urduri jartzen baitzen. Horren aurrean, bideoak grabatzeak “askatzen” lagundu diola azpimarratu du: “Terapia moduan meto-

do ederra dela uste dut, jende askorengana iristen baitzara, hitz egiten duzun unean zeu bakarrik egon arren. Jendaurrean lasaia go mintzatzen ikasi dut horri esker, eta beldurra galtzeko era egokia da”.


Erronka berrien atzetik

Lan kontuetatik eta proiektu berriek markatutako helburuetatik at, Donostiako Hiru Hondartzetako Krossa egitea da, orain, Ainara Garciaren erronka. Lasterketak “xarma berezia” du azpeitiarrarentzat: “Urtero, argazkiak egitera joan naiz lasterketa horretara, eta beti neure buruari esan izan diot egunen batean neuk parte hartu behar nuela bertan. Aurten ‘libreago’ nagoenez, unea iritsi dela uste dut”. Oraindik “serio” entrenatzen ez dela hasi aitortu arren, “garaiz” dabilela azaldu du irribarre artean. Hilabete batzuk barru ikusi beharko dugu ea lasterketako objektiboaren beste aldean agertzen den azpeitiarra lehenbizikoz.*



1. Ainara Garcia Saint Chapellen, Parisen.

2. Noruegara egindako bidaian ateratako argazkia. **3.** Berlinen.



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (ABUZZUA)

EGUNEZ

1-4-5-8-10-13-14-15-17-19
Eizagirre (Azpeitia).
943 811350

16-18-20-21-23-24-27-28-30
Jacome (Azpeitia).
943 080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 31n izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



KANPOKO IGERILEKUA.

Estaligabeko igerilekuak ekainaren 11n zabaldu zituen ateak, eta irailaren 11ra arte egongo da irekita, egunero, 11:00etatik 20:00etara. Eguraldia ona bada, astebete luzatuko dute denboraldia.

22-25-26-29-31
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

GAUEZ, URTE OSOAN
Jacome (Azpeitia).
943 080258

GARRAIO-

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

ANTONIO HERNANDEZ

Merche txurro dendako saltzailea

“corrugadosen itxierarekin txurroen salmenta jaitsi zen”

Hiru hamarkada daramatza txurro dendarekin, herriz herri. Azpeitia lanerako “herri ona” dela dio.  Ainitze Agirrezabala

Nola hasi zineten txurroak saltzen?

Emaztearen aita txurro saltzailea zen, eta hark erretiroa hartzean, guk jarraitu genuen negozioarekin. 30 urte daramatzagu hone-tan. Garai hartan, enpresa txiki batean egiten nuen lana, baina fabrikak porrot egin zuen, eta zegoenari heldu behar izan genion.

Zenbat txurro-denda dituzue?

Hainbat herritako festak aldi berean dira, eta bi karabana ditugu. Orain, adibidez, bat Eskoriatzan dugu eta txikia Zumarragan. Emaztea eta biok eta beste hiru lagun aritzen gara.

Urtean zehar zer lan egutegi duzue?

Apirilean hasi eta urriko Pilarikako zubira arte herriz herri ibiltzen gara. Aguraingoak gara izatez, eta, batik bat, Araban eta Gipuzkoan mugitzen gara; Bizkaian oso gutxi. Urritik apirilera, berri, hilabeteko egonaldi luzeak egiten ditugu Orion, Elgoibarren... Neguan, kalean txurro-saltzailea izatea asko gustatzen zaie hainbat herritako udalei.

Azpeitira ere urtero etortzen zarete.

Badira 30 bat urte! Aurreneko urteetan, plaza-jartzen genuen karabana, baina han fes-

tan zebilen ganberro asko izaten zen, eta amorrarazi egiten gintuzten. Urte batean, gainera, Caritasen tonbolari su eman zioten. Azken urteetan, tiobiboeekin batera gaude, Betharrametan; oso pozik. Sansebasti-
etan, karnabaletan eta Sanjuandegiko feste-
tan ere joaten gara. Azpeitia herri ona da la-
nerako. Corrugadosen itxierarekin, salmen-
ten jaitsiera asko nabaritu genuen, baina,
egia esan, urte guztiotan ez da asko aldatu
gure negozioa. Txurroen salmenta jateko
kontua izanik, ez da hainbeste jaitsi tiobiboe-
kin alderatuta.

Herri kuttunen bat bai?

Lazkao, esaterako, herri atsegina da. Herri-
tarrak oso eskuzabalak dira, eta baratzako
generoa eta etxeko oiloen arrautzak-eta
ekartzen dizkigute.

Gogorra al da ferietako bizitza?

Ez, ohitzea da. Kamioilariaren bizitza ere go-
gorra da, eta igeltseroarena... Karabanan bi-
zitzeagatik jendeak uste du gaizki bizi garela,
baina barrutik etxe bat bezala hornituta
dago. Beharrezko guztia dugu: ura, arginda-
rra...✕



1. Antonio Hernandez, txurroak oliotara botatzeko moztzen. 2. Maria Mercedes Jimenez emaztearekin. 3. Senar-emazteak, dendan.



svetlana alexievitx nobel sari

Guztiz ahanztirik nuen esan zidana. Ordenagailuan neure dokumentuetara jo, baina elkarrizketa hura ez da ageri. Erraza ere ez da: hiru-lau ordenagailu ibili ditut ordutik hona. Batean ez bada, bestean behar du iazko Nobel sariari orain dela dozena urte egindako elkarrizketa, baina joan eta bilazan/k! Gaitz erdi, Svetlana Alexievitx saria eman ziotela jakinarazi eta euskarazko egunkarian horren berri eman zutenean, 2004an idazleari egin nion elkarrizketa ekarri dute gogora, eta Internet lotura ere ezarri. Halaxe errekupeatu dut solasaldi zaharra, eta hura berriro letuz jakin dut zerk ekarri zuen Alexievitx Gasteiza urte hartan: Idazleen Nazioarteko Parlamentuaren bilera aitakia etorri omen zen. Delako parlamentu horren bilerara etorri ziren idazle guztiak gorabehera, nik Svetlana Alexievitxen eta Bashquim Shehuren akordua besterik ez daukat, erbestera biak, bata Paris ondoran eta bestea Bartzelonan bizi zena garai hartan. Ez dakit nola etorri zitzaidan haien bilkurara joateko deia, badakit Svetlanaren testu bat euskarara itzuli zuela baten batek, eta idazleen aurrean huraxe letzeko eskatu zidatela. Bileran hartan ezagutu nituen biak, Svetlana eta Bashquim Shehu, eta, egokieran, elkarrizketa bana ere eskatu nien. Bashquimi egindakoak ez zuen sokarik ekarri: egin genuen, publikatu genuen eta kito, ez zen beste historiari izan; istoriorik ere ez. Svetlanarenak, aldiz, segida izan zuen. Zapatua zen, eta beraren hoteleko kafetegian egin genuen elkarrizketa, interprete gazte ile-hori bat lagun. Svetlanak ez zuen errusiera besterik hitz egiten, eta nik, berriz, piperrik ere ez nekien beraren hizkuntzan. Elkarrizketa eginik, hiriaren parte zaharra ikusteko zein aldetara galdetu zidan Svetlanak interpretearen bidez, eta, zapatua zenez, eta etxean tarte bat elkarrizketarako hartuta nuenez, neuk lagundu nien. Eta hantxe, handik hamaika urtera Nobel saria izango zena Gasteizko parte



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Hurrengo egun batean, Svetlanaren emailua jaso nuen, liburu baten testua bertan. Errusieraz.

zaharrean –baina igual-igual ibiliko zen Azpeitikoan–, kale xaharretako zapatu-giroa surdizuloak zabal-zabal arnasten. Hedegileen kalera sartu orduko konturatu nintzen hilaren azken zapatuko azoka jarria zutela bertako dendariak eta auzotik etorritako merkatariek. Honi eta hari begira, hantxe gaztaren postua ere, eta –ezin etsi nik–, gure herrietako ardi-gaztaren on eta bertute guztiak aipatu nizkien Svetlanari eta interpreteari. Beroaldia izan, edo gorpuztuz ari zen adiskidetasun eta konplizitatearen seinale, gazta pusketa eraman zuten bi ukrainiarrek. Parte zaharretik irten eta etxera egin nuen, haiek hotelera bidan lagata. Hurrengo egun batean, Svetlanaren emailua jaso nuen, liburu baten testua bertan. Errusieraz. Aurten arte ez dut Svetlana Alexievitx iazko Nobel sariaren libururik letu.*





UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea
Tel. 943 81 26 66 • 20730 AZPEITIA



Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU
SANINAZIYUEK**



Urola
PSIKOTEKNIKOA

Larketak eta herritzeak

- ✓ Gida baimenak
- ✓ Armak
- ✓ Nautika
- ✓ Txakur arriskutsuak

Hartzubia, 31 behea

Tel 943 81 35 06 - 20730 AZPEITIA

ORDUTEGIA:

Goizez: Asteartetan 9:30etatik 12:00etara.

Arratsaldez: Asteazken eta ostegunetan 17:30etik 20:00etara.

**ONDO PASAU
FESTAK!**



ALBERTO FRANTZESENA - Harreman komertziala
alberto@bilmendi.com
Tel: 626 38 23 06 - 943 15 78 21

ERREFORMAK

- TEILATUETAKOAK
- FATXADETA KOAK
- ERA GUZTIAKOAK

DIRU LAGUNTZAK DAUDE
ETA
GUK TRAMITATZEN DITUGU



ERAIKUNTZA BERRIA

54 ETXEBIZITZA
1, 2 ETA 3 LOGELA

3 LOGELA
235.000€ IVA NASITA

**GARAJE ITXIAK;
BIKOITZAK ETA BANAKOAK**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA
683 704 750

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

www.alberdienea.com